

**UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN
GAINeko ZERGari buruzko ORDENANTZA
FISKALA**

2020ko URTARRILaren 1etik aurrera indarrean

Osoko Bilkurak onartua 2019ko irailaren 30ean

(GAOn 2019-11-25ean argitaratua, 225 zk.n)

Aurkibidea

1.Xedapen orokorra	3
1.artikulua	3
2. Gutxieneko kuoten ponderazioa	
2. artikulua	3
3. artikulua	3
4. artikulua	3
5. artikulua	3
3. Zerga kuota	3
6. artikulua	3
4. Kudeaketarako arauak	3
7. artikulua	3-4
5. Salbuespenak eta hobariak	4
8.artikulua	4
9. artikulua	
6. Azken xedapena	4-5
1.Eranskina	5
2. Eranskina	5

1.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratzailea onesten duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretuko 11 eta 12 artikuluek emandako ahalmena erabiliz, Udal honek Ordenantza honetan jasotzen diren koefiziente eta indizeak ezarri ditu.

2.- GUTXIENEO KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua.

Udalerrri horretan zergapetutako jardueretarako zerga honen tarifetan Foru Aldundiak ezarri dituen gutxieneko kuotak igoko dira 1. eranskinean azaltzen den koefizientearen arabera.

3. artikulua.

Udalerrrian zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikuluaaren arabera igotako kuotei 2. eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. artikulua

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, ordenantza honen 2. eta 3. artikuluetan hurrenez hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialesi eta bereziki, ezta Foru Errekarguari ere.

5. artikulua.

3. artikuluan jasotako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira 2. eranskinean erlasionatutako kategorien arabera.

3.- ZERGA KUOTA

6. artikulua.

Zerga-kuota ateratzeko zergaren tarifei aplikatuko zaizkie Ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluetako koefizienteak eta indizea, eta, hala badagokio, Foru Errekargua; horrezaz gain, ordenantza honek arautzen dituen hobariak ere aplikatuko zaizkie, beti ere Foru Arauak horiek ezartzen baditu.

4.- KUDEAKETARAKO ARAUAK

7. artikulua.

1.- Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak Gipuzkoako Foru Diputazioaren esku utzi ahal izango dira, Udal Batzarrak alde zuzenetik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuko da, ondorioak izan behar dituen urtearen hasiera baino lehen.

2. Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen sei hilabetearen barruan. Era berean, argitaratuko da aldizkari horretan bertan hitzarmen horien salaketa.

3. Artikulu honetako lehen zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziki dagokienez.

5 - SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

8 artikulua.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa egitea zerga sortu den ekitaldian.

9. Artikulua

1.- Zerga honen kuotan %95eko hobaria izango dute kooperatiba babestuek, federazio eta konfederazioek eta eraldaketarako nekazaritza sozietateek, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Forua Arauak jasotakoaren arabera.

2.- Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira Elkarleen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, baldin eta Udalarekin batera lankidetzaz jarduerak burutzeagatik bertako organo eskudunak herri onurakoak izendatzen baditu.

Salbuespena aplikatuko zaie beren zeregin propioen barruan sartzen diren eta udalerriko gutxieneko kuotarekin zergapetzen diren jarduerari.

3- Zerga-kuotaren %50eko hobaria izango dute, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenek.

4- Dagokion kuotaren %5, 10 edo 20ko hobaria izango dute, hurrenez hurren, udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, baldin 1.000.000 €-tik beherako negozio zifra (zenbateko garbia) badute, eta baldin hobaria aplikatzeko den zergaldiaren aurre-aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean.

Hobaria honela aplikatuko da:

- a) Kuotaren %5, langileen gehikuntza %5 izan bada.
- b) Kuotaren %10, langileen gehikuntza %10 izan bada.
- c) Kuotaren %20, langileen gehikuntza %20 izan bada

5.- Gerta daiteke hobariren bat baino gehiago jasotzeko eskubidea aldi berean izatea. Horrela gertatzen denean, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da.

6.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskala eta horren 1. eta 2. eranskinetako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak onartu zituen Udal Batzarrak, eranskinean esaten den egunean egindako batzarraldian, eta 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

1. ERANSKINA

Gutxieneko kuotak igotzeko %2,2ko koefizientea da

Aipatutako koefizientea behera berrikusiko da, Foru Aldundiak gainkarga forala ezartzea erabakiz gero.

Ponderazio koefizientea ezartzen da: Udal zerga tarifetan gutxieneko kuotak gehituko dira, udal zergak ordaintzeko sistema berrituan 1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailean azaltzen den taularen arabera.

NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA (EUROTAN)	KOEFIZIENTEA
1.000.000,00 eta 5.000.000,00 euro bitartean	1,29
5.000.000,01 eta 10.000.000,00 euro bitartean	1,30
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 euro bitartean	1,32
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 euro bitartean	1,33
100.000.000,00 euro baino gehiago	1,35
Eragiketa bolumenik gabe	1,31

2. ERANSKINA

Udal mugapeko bide publikoen sailkapena:

Indize bakarra: 1